

5.000 denda txiki elkartu dira erraldoien aurka

Saltoki handien hedapenaren aurrean, komertzio txikietako dendariak elkarte berrietan batu eta antolatzen hasi dira. Bizkaiko merkatariek Bizkaidenda elkarte sortu dute orain gutxi eta EAEko merkatariek elkarteak bilduko dituen Euskal Dendak izeneko konfederazioa ere sortzekotan dira laster. Bestalde, martxoaren 9an dendarien ordezkariak Eusko Legebiltzarrean izango dira, eta besteak beste, Saltoki Handien Legearekin dituzten desadostasunak azalduko dituzte.

Urko Apaolaza

HERRIETAKO KOMERTZIO eta denda txikietako jabeak oso kezkatuta azaldu dira azken aldian. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak kaleratutako dekretu batek Saltoki Handien Legeari hainbat aldaketa egin dizkio eta ez daude batere ados horrekin, herrien kanpoaldean saltoki handi gehiago jartzea ahalbideratuko duela baitiote. Horren aurrean, merkatariek elkarte berrietan antolatzeari ekin diote, administrazioarekin hartueman zuzena eta librea izateko asmoz.

Euskal Dendak, konfederazio erraldoi berria

Duela aste batzuk Durangon egindako bilera batean, merkatariek Bizkaidenda izeneko elkartearen estatutuak martxan jartzea erabaki zuten. Federazio berrian hainbat herritako zazpi merkatarik elkarte bildu dira oraingoz, eta guztira 1.000 denda txiki ordezkatzeko dituzte. Federazio berri honetaz gain, Bilbon Ezkerraldenda izeneko dago, 14 elkarte eta 1.500 dendari daude bertan bilduta. Gipuzkoan, aldiz, aspaldi sortu zen Dendartearen izeneko elkarte eta herrialde horretako 15 gremiok parte hartzen dute bertan. Araban oraindik ez da horrelako federaziorik sortu, baina bidean dira.

Federazio hauek sortzea ezinbesteko pausoa da Euskal Dendak ize-

Boulevard zentro komertziala.



JOANAN RUIZ / A.P.

neko konfederazioa osatzeko. Konfederazio honek EAEko 5.000 komertzio txiki inguru ordezkatzeko ditu eta Jaurlaritzaren Dekretuari aurre egiteko tresna izatea nahi dute merkatariek. Horretaz gain, erakunde berriak beste zeregin batzuk

izango ditu: dendariak merkataritza biziberritzeko planen inguruan izan ohi dituzten arazoak konpontzea, dirulaguntzen inguruko informazioa ematea, prentsa kabinete baten bidez merkatarien kezak eta ekimenak ezagutaraztea...

Europako 'Bolkenstein' merkataritza direktiba, 2010 urterako martxan

Saltoki Handien Legearen Berrikuspenak zeresan handia eman du azkenaldian eta gizar-teko hainbat sektore eta sindikaturen kontrako iritzia jaso du.

Jaurlaritzak dio Legean egindako aldaketekin komertzio txikia aterako dela onuradun, saltoki handien presesentzia ezin izango delako merkatu kuotaren %50 baino gehiago izan. Gainera, administrazio honen ustetan enpresa handiak "bizitza komertzialaren dinamizatzaile dira". Sindikatuek hainbat alegazio egin zituzkien Ana Agirre sailburuaren proiektuari. EHNEK, esaterako, Legearen Berrikuspenarekin denda txikien herenak itxi egin beharko duela dio, araudi berriak pertsona bakoitzeko merkataritza gune handien indizea handitzen duelako.



JON HERNÁEZ / A.P.

Bolkenstein: Otsoa badator?

2010 urtean Bolkenstein-a (Europako Zerbitzu Direktiba) jarriko da martxan eta horrek merkatal guneen liberalizazioa ekarriko omen du halabeharrez. Jaurlaritzak dio urte hauetako arnasaldiaren ondoren prest egon behar dugula Europatik datorren araudira egokitzeko. Merkatarien iritziz ez da egia Bolkeinstein-arekin zentro komertzial handiak liberalizatuko direnik, "otsoa datorrela" oihukatzea egozten diote administrazio publikoari, eta ziur daude araudi horren aurrean neurriak hartu daitezkeela saltoki handien neurrigabeko hedapena ekiditeko.

Dendarien ustez, gaur egun dauden merkatarien erakundeak "instituzionalizaturik" daude –Euskomer barruan biltzen dira erakunde horiek– eta denda-kate ezagunen interesen alde egiten dute –El Corte Ingles, Zara...–. Hain zuzen, Jaurlaritzaren Dekretuari bere oniritzia eman izana horren adibide dela diote Euskal Dendak-en sortze lanean ari direnek.

Legebiltzarrean agerraldia

Hori guztia salatzeko merkatarien ordezkariak agerraldia eskainiko dute martxoaren 9an Eusko Legebiltzarrean. Komertzio txikiak eta talde ekologisten babesarekin joango dira Legebiltzarrera. Izan ere, beren ustez, hipermerkatu eta saltoki handiak ugaritzeak komertzio txikiaren gainetik

dagoen arazo larri bat ekarriko baitu: hiriguneetako bizitzaren desagertzea eta desertizazioa. Legebiltzarreko agerraldian Kataluniako modelo defen-datuko dute merkatariek. Beren ustez katalanek askoz hobe egokitu dute legea merkataritza txikiaren mesedetan; herrialde hartako eragileek herriz herriko azterketa egin dute, saltoki handiak non jarri daitezkeen esateko.

Agerraldi horri begira, merkatariek Legebiltzarrean ordezkariak izan behar dituzten hainbat talde politikorekin jarri dira kontaktuan eta pentsatzen dute arku parlamentarioaren gehiengoak babesa emango diela. **n**

Errenteriako Ekitaldiak Martxoan

Zine Emanaldiak

Alargunen gailurra

Helduak

Martxoak 8

Errenteria Hiria Kulturagunean, 19:30ean

P3K, Pinotxo 3000

Haurrak

Martxoak 10

Errenteria Hiria Kulturagunean, 11:30ean

Emanaldiak

Tabuak saltsa berden

(Pako Aristi eta Mikel Markez)

Martxoak 22

Xenpelar Ebtean, 19:30ean

Antzerkia

Toni La Sal "Birusak erasoan"

(Eskolatik kalera)

Martxoak 30

Errenteria Hiria Kulturagunean, 17:30ean

Ipuinaren ordua

Itsasoa bare,

ipuinaren arrantza debalde!

Martxoak 8

Haur liburulegian, 18:00etan

Egun euritsueterako ipuin bustiak

Martxoak 22

Haur liburulegian, 18:00etan



euskara
zerbitzua
errenteriako udala